



ERLE POTOLOA

EGILEA:

Nerea Urbizu

ABESLARIA:

Laura Villanueva

ERLAUNTZAN BAZEN
ERLE POTOLO BAT; HAIN POTOLOA,
EZEN EZ ZEN ATERATZEN KALERA
(BERRIZ).

ZER EGINGO DUZU
ERLAUNTZAN EGUN OSOAN SARTUTA?
LAGUNEK GALDETZEN ZIOTEN ALDIRO.

EZTIA JAN **-JAN!**
ASPERTU ARTE **-TE!**
LO EGIN **-GIN!**
BEGIRA EGON **-GON!**
ALE, AGUR **-AGUR!!**

ERLAUNTZAN BAZEN
ERLE POTOLO BAT, HAIN POTOLOA,
EZEN EZ ZEN ATERATZEN KALERA
(BERRIZ).

ZER EGINGO DUZU
ERLAUNTZAN EGUN OSOAN SARTUTA?
LAGUNEK GALDETZEN ZIOTEN ALDIRO.

EZTIA JAN **-JAN!**
ASPERTU ARTE **-TE!**
LO EGIN **-GIN!**
BEGIRA EGON **-GON!**
ALE, AGUR **-AGUR!!**

HALAKO BATE(A)N
ERLE POTOLOAK, KALERA IRTEN NAHI,
BAINA EZIN ZUEN KALERA IRTEN!
(BERRIZ)

-ZER EGINGO DUT
ERLAUNTZAN EGUN OSOAN SARTUTA?
GALDETZEN HASI ZEN LAGUNEI.

EZTIA JAN **-JAN!**
ASPERTU ARTE **-TE!**
LO EGIN **-GIN!**
BEGIRA EGON **-GON!**
HORI AKASO? **SO, SOO!**

MMMM, AJA! PREST? AAAAAAAA!!!

SARRERA BERAZ HANDITU EGIN ZUTEN
DENEN LAGUNTZAZ,
TA EZ ZEN BERRIZ SARTU
ERLAUNTZARA.

NON BIZI DA ORAIN ERLE POTOLOA?
POZIK BIZI DA LORE GORRI EDER BATEN
GAINEAN. HARA!